

Errobotik euskal itsasbazterrera

Ibilbide guztiak ikusi liburu honetan ►►
Turismo bulegoetan eskuragarri



Maila
2

ERREXA

BORDAK



Galbarioa 3.punduan

Ibilbide hori interesgarria da Urguri auzoa traveskatzen duelako. Auzo horretan lapurtar estiloko etxeak ikus daitezke. Tontorrek Senpere eta Sarako ibarraruntz eskaintzen dituzten bistek, Urdazuri ibaiak eta artzain guneez ibilaldi honen xarma osatzen dute.

D Urdazuri traveskatu Utsalea zubian eta ondotik pista hartu. Puntan, ezkerredera **1** 0616733-4801350 hartu, zeharkatu beharko den Urguri auzoruntz, Mendixketara **2** 0616588-4800935. igotzen den ezkerreko pista hartu, Ibilbidea galbario **3** 0616586-4800221 baten aitzinetik pasatzen da eta zuzen segitzen du.

0'37

Balizamendua segitu breazko bidera **4** 0615453-4798487. arribatzeko. 400 m-tan segitu, eta pista hartu, ezkerrean, **5** 0615496-4798333. Xuxen segitu, bidean, gotorleku zahar batetik hurbil pasatuz. "Hesi kanadiar" bat eta Uhaldekoborda baserria pasatu **6** 0617323-4798163. Bidea jautsi RD3-runtz.

1'54


Eskuinera hartu Urdazuri zeharkatzeko, eta ondotik, segidan ezker, zubia eta gero, breazko bidean **7** 0618004-4798348. Arkitektura berezia duen Amotzeko zubi zaharraren aitzinetik pasatu.

2'26

Ezkerrera joan breazko bide ttikira **8** 0618461-4798696 eta xuxen segitu, patarraren tontorreraino (ULM

pista).

Herrira itzultzeko ezkerredera hartu **9** 0619016-4799556 "Aintzirako" ibilbidearekin amankomuna den balizamendua, Olha auzoruntz.




Utsalea zubia, ibilbidearen abiapuntuan.

Maila
2


ERREXA

BORDAK




D Senpereko Utsalea
Zubia

GPS : 0617271-4801422

 3'15

Balizamendua


D-tik **9**-ra 

 13 km

 303 m

Ikusi beharrekoa

- Zubi erromatarra
- Urdazuri
- Lapurtar etxeak
- Luis XIV gotorlekuak

 Saihestekoa ehiza garaian.

LAPURDIKO ETXEA

Mendizaleak euskal etxe tradizionalaren arkitekturaren ezaugarriak aztertzen ahalko ditu. Bi kontraste azpimarratu behar dira : etxearen aitzineko aldea kixuaren bidez xurritua eta armazoiak, berriz, gorritz eta ferdez. Atea gehienetan harri landuz egina da eta sartzea sakona. Teilatua teilazkoa da.

Etxe bakoxtaren izena barnean bizi direnei lotua zaio. Horrela, familiaren sustraia ezagutzen da.

Ad : Etxeberri, etxe berria, Etxeberria familia Etxeberria etxekoa da.



Renseignements complémentaires auprès de :
Office de Tourisme de Saint-Pée-sur-Nivelle

Chemin Ibardea - 64310 SAINT-PEE-SUR-NIVELLE - Tél : 05 59 54 11 69

fax : 05 59 85 86 38 - Mail : tourisme.stpee64@orange.fr - Web : www.saint-pee-sur-nivelle.com

 **TERRE ET CÔTE BASQUES**
PAYS DE SAINT-JEAN-DE-LUZ - HENDAYE

GUIDES RANDO 64

Oinez, mendiko bibizikletaz edo zaldiz, Biarno eta Euskal Herria ezagutu !

Mailak

Fitxetan ageri den **desnibela**, igoera guztien emaitza da. Ibilaldien iraupena pausa momentuak konduan hartu gabe kalkulatu da.

Oinezko ibilaldiak mailaren arabera sailkatuak dira eta ibilbide bakoitzaren fitxa praktikoan kolore batez azalduak. Izan ere, FF Randonnée-ren arauak segitzen ditugu.

Biziki errexa 2 oreneko ibilaldia baino laburragoa.

Familiarekin egiteko biziki egokia, bidexka zabaletan zehar.

Errexa 3 oreneko ibilaldia baino laburragoa.

Familiarekin egin daitekeena. Bidexketan,

tarte zailago batzuekin.

Ertaina 4 oreneko ibilaldia baino laburragoa.

Mendizale adituei zuzendua. Leku aski zaila batzu eta desnibela handia izaten ahal dira.

Zaila 4 oreneko ibilaldia baino luzeagoa.

Mendizale aditu eta kirolaria denari zuzendua. Ibilaldia luzea edo zaila izaten da. (desnibela, parte zailak), edo biak betan.

Ibilaldiaren iraupena: zure informazioarako emana da. Ibilaldiaren luzetasuna konduan hartzen du, baita desnibelak eta izan daitezkeen zailtasunak ere.



Bide seinaletika

Balizamendua

Balizamendua segitu bide onean egoteko

Bidexken balizamendua	Herri ibilbideak eta PR®	GR®
Norabide ona		
Ezkerrera itzuli		
Eskuinera itzuli		
Norabide txarra		

GR®, GRP® eta PR® Oinezko Ibilaldietarako Frantses Federazioak pautatu dituen sormarkak dira

Zure iritzia gure bidexkei buruz - Ecovaille®

Kasu handia egiten dugu proposatzen dizkizugun ibilaldiak hautatzerakoan eta prestatzerakoan. Gure bideen egoerari buruz dituzun iritziek eta oharrek interesatzen gaituzte. Horiei esker, bideak egoera onean atxikitzen ahal ditugu. Zure oharren jakinarazteko CRDP 64 deitzera gomitatzen zaitugu : 05.59.14.18.80.

Edo « Ecovaille » ohar fitxa bat galdegin ondoko webgunean : www.rando64.fr

Aholku baliagarriak

Aroa 08 92 68 02 64

Europako larrialdi zenbakia 112

Biarno eta Euskal herriko bideetan gaindi ibiltzean lurralde hori biziartzten duten izadi, gizon eta emazteekiko portaera errespetagarria izan dadin ezinbestekoa da.

Arau batzu errespetatzea inportantea da.

Izadia begiratu

- Zure hondakinen biltzeko zaku bat hartu.
- Abereak eta landareak errespetatu
- Balizatuak diren bideetan egon

Zure burua zaindu

- Mendira ez abiatu behar den materialik gabe
- Bakarrik ez joaten saiatu.
- Erreketako urik ez edan.
- Aroari kasu egin.

Aktibitateak eta gizakiak errespetatu

- Hesiak berriz hestea pentsatu.
- Suak debekatuak dira.
- Ibilbideak inguratzen dituzten etxe pribatuak errespetatu.

Ibilaldien labelak

PR® labelizaturiko ibilbideak :

Label horrekin, FF Randonnée-k oinezko ibilaldiak kalitatezko ezaugarrien arabera onesten ditu aitortpena. Hautua ezaugarri tekniko eta turistikoaren arabera, baita ingurumenari loturiko ezaugarrien arabera ere egiten da. (xehetasun gehiago ukaiteko, www.ffrandonnee.fr)

Ibilbideen GPS datuak.

Ibilbide bakoitzarentzat, etapa punduen GPS datuak emanak dira.

Erreferentzia formatua hau da :

WGS 84 - UTM 30T

Kasu !

Euskal eta biarnes mendiak artzain-eremuak dira. Xakurrik gabe joaten saiatu. Edozein kasutan, loturik atxik. Milesker !